



Ardi aziendaren katarro sukarraren edo mingain urdinaren gaitza etiologia birikoko gaixotasun bat da, hainbat espezieetako hausnarkariei eragiten die, eta *Culicoides* generoko eltxo jakin batzuek transmititzen dute. Gipuzkoak duela 4 urte jasan zuen gaixotasun hori, eta txertaketa espezifikoa bidez kontrolatu eta desagerrarazi zen. Gaixotasun horren aurkako kontrolean eta borrokan frogatu da txertoa dela armarik eraginkorrena.

Mingain urdina eskualde edo herrialde batean agertzeak ondorio sanitario eta ekonomiko handiak ditu, eta Animalien Osasunaren Nazioarteko Erakundearen Gaixotasunen Zerrendaren barruan dagoen nahitaez adierazi beharreko gaixotasuna da. Horren ondorioz, debekatuta dago animaliak, hazia eta enbrioiak esportatzea, eta mugatuta daude herrialde barneko mugimenduak, abeltzaintza azokak eta bestelako animalien kontzentrazioak.

2024ko urriaren 30ean mingain urdinaren gaixotasunaren foku bat deklaratu da Oiartzunen.

**Hori horrela, mingain urdinaren gaitza kontrolatzeko beharrezkoak diren derrigorrezko neurri hauek hartzea erabaki da:**

1. Gipuzkoako lurralde osoa mingain urdinaren 8. serotipoko eremu mugatua deklaratzeko.
2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko behi eta ardi azienden ustiattegietan mingain urdinaren 8. serotipoaren aurkako nahitaezko txertaketa ezartzea.
3. Hiru hilabetetik gorako behi eta ardi espezieetako animalia guztiak txertatuko dira, erabilitako txertoaren zehaztapenen arabera.
4. Berehala hasiko da derrigorrezko mingain urdinaren 4. eta 8. serotipoen aurkako txertaketa-kanpaina.
5. Txertaketa «UTE GIABERE – Saneamendu zerbitzuak» enpresako albaitariak egingo dute, Gipuzkoako Lurralde Historikoko animalien osasun zerbitzu kontratuaren adjudikazioduna baita enpresa hori.
6. Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu txertoaren erosketa eta txertoa jartzearen gastuak. Aldundiak antolatzen duen txertaketa kanpainaren barruan egiten diren ekintzak bakarrik diruz-lagunduko ditu, bi ekintza abelgorrien kasuan eta bakarra ardietan. Kanpainatik kanpo egiten diren txertaketetan, abeltzainak ordaindu beharko ditu txertoa jartzearen kostuak.
7. Gipuzkoako Lurralde Historikoan jatorria duten ardien eta abelgorrien mugimendua mugatzea agintzen da. Murrizketa horiek baldintza hauetan egin beharko dira:



- Euskal Autonomi Erkidegoko barneko mugimenduetarako
  - Jatorrizko ustiatégian abereek ez dute gaitzaren ezaugarri klinikorik izan behar.
  - Animaliak aldeztatik desintsektatuak izan beharko dira
  - Intsektuak uxatzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan egin beharko da garraioa. Lekualdaketarako osasun-dokumentazioan data eta erabilitako intsektuak hiltzeko produktua adierazi behar da
  
- Euskal Autonomi Erkidegoko kanporako mugimenduetarako:
  - Jatorria txertatutako ustiatégia eta
  - 8 serotipoaren aurkako txertoa hartu dutenak (2 dosi 3 asteko aldearekin abelgorrien kasuan. Dosi bakarria ardietan)
  - 3 hilabetetik beherako animaliak txertatu gabe mugitu ahal izango dira, baldin eta jaiotzen zirenean beraien amak egoki txertatuta bazeuden.
  - Animaliak aldeztatik desintsektatuak izan beharko dira
  - Intsektuak uxatzeko tratamendua jaso duten ibilgailuetan egin beharko da garraioa. Lekualdaketarako osasun-dokumentazioan data eta erabilitako intsektuak hiltzeko produktua adierazi behar da
  - **Txertatuta ez dauden animalien kasuan:**
    - Behi eta ardi hiltegiarako mugimenduak
      - Aldeztatik desintsektatutako ibilgailuak, lekualdaketarako osasun-dokumentazioan data eta erabilitako intsektuak hiltzeko produktua adierazita,
      - Itxaronaldirik gabeko uxatzailearekin tratatutako animalia, eta
      - Jatorrizko ustiatégian abereek ez dute gaitzaren ezaugarri klinikorik izan behar
    - Behien eta ardien mugimenduak, hiltegiarako ez direnak:
      - bektorearen erasoaren aurrean babestuta dagoen animalia, gutxienez 14 eguneko, eta 14 egun horietatik aurrera PCR analisia egin beharko zaio mihi urdineko birusak detektatzeko (3 animalia arteko poolak egiteko aukerarekin). Emaizta negatiboa izan behar du. Emaizta horrek gehienez ere 10 eguneko balioa izango du, eta epe horretan animaliak bektorearen erasotik babestuta egon beharko du garraioaren unera arte. Abenduaren 1 arte, PCRak egitearen kostua Aldundiak bere gain hartuko du. Abenduaren 1etik aurrera berriz, animalia txertatuta ez egoteagatik PCR egin behar bazaio, kostua abeltzainak ordaindu beharko du.
      - aldeztatik desintsektatutako animaliak eta ibilgailuak
      - Jatorrizko ustiatégian abereek ez dute gaitzaren ezaugarri klinikorik izan behar



8. Abeltzaintza azokak, txapelketak eta bestelako animalien kontzentrazioak antolatzeke baldintzak honako hauek izango dira:

- 8 serotipoaren aurkako txertoa edo PCR analisiak eskatuko zaizkie. PCRaren emaitza 10 eguneko balioa izango du eta epe horretan animaliek bektorearen erasotik babestuta egon beharko dute garraioaren unera arte. Abenduaren 1etik aurrera, abelgorriei PCR-ak egitearen kostua abeltzainak ordaindu beharko du
- aldeztu aurretik desintsektatutako animaliak eta ibilgailuak
- Jatorrizko ustiatzearen abereek ez dute gaitzaren ezaugarri klinikorik izan behar

9. Mingain Urdina duten animaliak daudela susmatzen bada, animalia horien titularrek edo edukitzaileek ustiatzearen albaitari ofizialari jakinarazi beharko diote lehenbailehen.

10. Gaitza izan dezaketen animalien jabeek eta edukitzaileek honako higie eta osasun neurri hauek hartzea gomendatzen da, gaixotasunaren hedapena geldiarazteko:

- a. Animaliak intsektuen ziztadetatik babesteko neurriak hartu beharko dira, horretarako behar diren intsektuak uxatzeko produktuak erabilia eta, betiere, debeku aldiak errespetatuta.
- b. Ahal izanez gero, animaliak toki itxitan edukiko dira bektoreen jardura orduetan.
- c. Ukuiluak eta inguruak tratatu beharko dira intsektizida baimenduak erabiliz.

**NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO SUSTAPEN ETA OSASUN ZERBITZUA**